

VII. «RIKARDO ARREGI» KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

VII. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, José Antonio Pérez Gabarain, Andoingo Alkatea eta Mahai-burua dena, Gaizka Aranguren Urrotz, Nerea Azurmendi Zabaleta eta Hasier Etxeberria Canales eta Idazkari lanetan eta, beraz, hitzez baina boturik gabe ihardun duen Pello Iturriz Zelaiak osatu duten Epaimahaiak alegia, Azken Erabakia ezagutzera ematea akordatu du.

Sariari zehazki dagozkion adierazpenak egin aurretik, ordea, Epaimahaiak bere elkartasuna azaldu nahi dio, insumisioa arrazoi, gaurregun espetxeraturik dagoen eta zoritxarrez gure artera etorri ezingo duen Gaizka Aranguren Urrotz epaimahaikide lagunari.

Beraz, hori azaldu ondoren eta sariari dagokionean, Epaimahaiak egoki ikusi du honako adierazpenak egitea:

1.- Lehendabizi adierazi, aurreko urteetan bezalaxe, Epaimahaiak berak egin duela "Sekzioa", "Baloraziozko Kazetaritza" eta "Erreportaia" atalen jarraipena. Beraz, hilabete luzez aritu da Epaimahaia euskarazko aldizkari eta egunkarietan argitaratutako lanak aztertu eta maila on eta edukin nahikoa duten euskarazko lanak eta proposamenak aztertzen, saria jasotzeko behar bezainbesteko maila zutenak argitaratutako orrietatik ateratzeko. Hala, bada, behin egunkari eta aldizkari denak arakatu eta aztertu ondoren sariak erabakitzeko eztabaida lanei eman zitzaien hasiera. «Herrietako aldizkariak» atalean, berriz, urtero bezala lanak egileak berak aurkezteko irizpideari eutsi diogu, eta, denetara, hogeita hemeretzi lan aurkeztu dituzte herri aldizkarietako kazetariak.

2.- Sari honetako lehen sei edizioetako Epaimahaiaren Azken Erabakiek, urtez urte, euskal kazetaritzaren gaur eguneko iharduna eta ihardun horren ezaugarri, beharkizun eta zirkunstantziak izan dituzte hausnargai, eta horien argitara ahalegindu da itxuratzen bere iritziko euskal kazetaritzak etorkizunean gihartu beharreko zantzu nagusiak. Hala, epaimahaikideok urtero-urtero egin dugun ohiturari jarraiki, sariak ezagutzera eman aurretik, gure iritzi edo hausnarketa zenbait azalduko ditugu egin ohi dugun jarraipen eta azterketa lanetan antzeman edo ikusi ditugun euskarazko kazetaritza munduko hainbat errealitate, egoera edo baldintza azalduz. Apaltasun osoz egin ohi dugu hausnarketa lan hori eta, oraingoan, bi puntu dira oso bereziki nabarmendu nahiko genituzkeenak.

3.- Batetik, Epaimahaiaren iritziz, Sariaren egungo oinarriek ez diote bete betean erantzuten kazetaritza moderno eta prestuaren irudiari, azken urte hauetan bilakae-ra izugarria jasan eta gaurregun garrantzia itzela duten beste kazetaritza motak nagusitu baitira, hala nola, iritzi artikulua eta zutabeak, telebista eta irratia. Beraz, badirudi heldu dela garaia, Andoaingo Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gaia hartu eta berazterketa sakon bat egin, Sariaren helburuetara estuago egokitzeko.

4.- Bestetik, Epaimahaiaren iritziz aipamen berezia merezi du Euskaldunon Egunkariak argitaratzen duen igandeko produktuak eta bi arrazoiengatik nagusiki. Euskarazko egunerokorik kaleratzea oraino erronka itzela da gure hizkuntzarentzat eta alde horretatik, egunkari honek egiten duen ahalegina benetan da txalogarria. Eta eredu garria da, era berean, Sariaren helburu nagusia kontutan izanik, baliapide urritasunak eragiten dizkion oztopoak bide imaginatibo eta berrien bidez gainditu eta euskal kazetaritzaren iharduera maila gorenera jasotzen baitu.

5.- Aurtengo edizioko sarien banaketari ekin aurretik, bada, horratio, irizpide bat urtero-urtero gogorarazi ohi duguna, eta, aurrerantzean ere, argi eta garbi azpimarratuko duguna: *«huts-hutsik, idazlanen eta sekzioen kazetari balioa hartu da kontutan, beste edonolako kontsiderazioren ginetik eta aurrerago aipatzen den beste zenbait irizpideren kalterik gabe. Beste hitzetan esanda, euskarazko prentsa normalduan inolako homologazio arazorik gabe leku propioa izango luketenak saritu dira».*

6.- Orain egiegun behingoz aurtengo edizioan saritutakoei ekitaldi honetan dagokien lehentasunezko tokia. "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sariko Epaimahaiak lehen ediziotik hasita sariak erabakitzerakoan izan duen xederik nagusia euskarazko kazetaritza prestu eta modernoa sustatzearren eredugarri litezkeen lanak saritzea izan bada, aurtengo sariak urtez-urte ondutako maila garaia bere hortan finkatu dute; eta zaila suertatu zaie epaimahaikideei erabakia ahobatez hartzea; izan ere, aurkeztu eta hautatu dituzten lanen maila handia izan baita.

7.- Hori guztia kontutan hartuta, honako hau da, sariei dagokienez, Epaimahaiak bere egiten duen erabakia:

7.1.- «Herrietako aldizkariak» ataleko saria, 200.000 pezetaz hornitutakoa. Aipatu irizpideez gain erabakiorra izan da saria ematerakoan, iturri anitzetako informazioa bilduz lana ildo berean planteamendu periodistiko apartaz osatua izatea, eta eredugarri gertatzea ez bakarrik herri aldizkariarentzat baizik eta zabalkunde orokorreko edozein komunikabide idatzirako.

📎 Saritutako idazlana: «*Colours United of Beterri*», **AIURRI** aldizkariaren 4. zenbakian argitaratua, 1994ko uztailean.

Autorea: **Jone Larrañaga** anderea.

7.2. «Sekzioa» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Kasu honetan, saritu beharrekoa «*mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa*» izan behar dela diote, hitzez hitz, Andoaingo Udalak ezarritako oinarriek. Saritutako sekzioa epaimahaikideen iritziz berritzailea eta ez-ohikoa da, nazioarteko gaietan eguneroko informazio freskoa eskaintzeko baliapide urritasunari aurre, era oso periodistikoan egiten diolarik

📎 Saritutako sekzioa: "*Munduaren talaian*", **Euskaldunon Egunkarian** argitaratua.

Sekzioaren zuzendaria: **Koldo Aldabe** jauna.

Egileak: **Koldo Aldabe** bera eta **Jone Larrañaga**.

7.3. «Baloraziozko kazetaritza» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Lehenago aipatutako irizpideez gain, komenigarri deritzogu, urtero egin legez, oinarrietako laugarrenak atal honetako sariari buruz dioena hitzez hitz emanda gogorarazteari: *«fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikulua izan beharko dute hauek, nahiz eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako lanak izan. Sari hau erabakitzerakoan, Epaimahaiak oso kontutan hartuko ditu egileak aztergaiari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorrotasuna»*. Erreferentzia gisa sarritan esan izan dugu, berau izan zela Rikardo Arregik hain jori landu zuen alorra. Aurten saritutako lana erreferentzia horri bete-betean egokitzeaz aparte, aurreko edizioetan saritutako lanen kalitate eta ontasun maila bikaina sendotu eta berrestera dator.

✍ Saritutako artikulua: *«Barraren erdian»* izenburukoa, **Euskaldunon Egunkarian** 1995eko urtarrilaren 8an argitaratua.

Autorea: **Anjel Lertxundi** jauna.

7.4. «Erreportaia» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Oinarrietako bostgarrenak honela dio atal honi dagokionez: *«sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere, estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontutan»*. Saritutako erreportaia bete-betean egokitzen da bere helburura. Izan ere, artearen munduan hain eztabaidatua izan den pertsonai horren inguruko fundazioaren gorabeherak egikera periodistiko bikainez azaltzen ditu.

✍ Saritutako erreportaia: *«Quosque tandem»*, **Euskaldunon Egunkarian** argitaratua 1995eko urtarrilaren 15ean.

Autorea: Alberto Barandiaran jauna.

Honaino, bada, VII. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Sariari dagokion Azken Erabakia, epaimahaikide guztiok ontzat eman eta sinatu duguna gaur, Andoainen, mila bederatzehun eta laurogeita hamabosteko uztailaren zortzian.

Izpea.: José Antonio Pérez Gabarain

Izpea.: Gaizka Aranguren Urrotz

Izpea.: Nerea Azurmendi Zabaleta

Izpea.: Hasier Etxeberria Canales

Izpea.: Pello Iturrioz Zelaia